



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia

Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343

EHAEOren ETA EHAEOren BIZKAIKO ORDEZKARITZAREN EGOITZEN HISTORIA

Arkitektoen Elkargo Ofizialaren hastapenak

Bizkaiko Arkitektoen lehenengo Elkarteak 1893. urtekoa da, nahiz eta urtebete lehenago hasiko ziren, seguru asko, hura osatzeko eta onartzeko izapideak. Atanasio de Anduiza y Uríbarri jauna izan zen elkartearen lehenengo lehendakaria, eta hark idatzia da 1893an Bilboko Udalarik egindako eskaera, Bilboko Eraikuntzaren alorreko Udal Ordenantzen artikulua bat aldatu zezan; zehazki, etxeetako teilatuen gailurra lehenengo hormartearen¹ zabalerari buruz goratzeari dagokion artikulua. Hura izan zen, hain zuzen ere, Elkartearen izatearen eta jardunaren lehenengo dokumentua.

Horrekin batera, Estatuaren testuinguruan, XIX. mendearen bigarren herenean arkitektoen artean hasia zen osatzen estamentu eta gizarte maila pribilegiatuen aurrez aurre talde bat antolatzearen kontzientzia. Edonola ere, Arkitektura elkarte pribatuen sorrerak, hala nola, Zentrala, Kataluniakoa eta Bizkaikoa, gutxienez eragina izan zuten, gutxi zirelako, batetik, eta jarduerak publiko eskasa zutelako, bestetik. Horren ondorioz, Kataluniako Elkarteak elkargo bati dagokion antolamendu eredua sustatzearen alde egin zuten, Errestaurazioaren garaiko egitura estatutaren kontra; izan ere, azken horrek defendatzen zuen norbanakoaren askatasunaren kontrakoa zela derrigorrez elkargoko kide egin beharra.

1929ko abenduaren 27an, Madrilgo Menéndez Pelayo Hiribideko eraikinaren hondoratzea izan zen Arkitektoen Elkargoaren sorrera Dekretua aldarrikatzeko inflexio puntua, Primo de Rivera jenerala presidente zela. Gertaera hark gizartean izan zuen oihartzunak bizkortu egin zuten Sozietate Zentralak Arkitektoen Elkargoa sortzeko sustatuko kanpainaren ahalegina.

1930eko uztailaren 16ko Errege Ordenari esker, erabateko izaera juridikoa, izaera ofiziala, eman zitzaion Arkitektoen Elkargoei, eta horrekin batera finkatu zen haien kopurua, hedadura eta gaitasuna. EHAEOri dagokionez, Bilbon eratu behar zen haren hiriburutza, 4 probintziak hartuz: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa. Era horretara, 1930eko uztailaren 30ean, Bizkaiko Gobernu Zibilean, Arabako, Bizkaiko,

¹ Basas, M., "Asociación de Arquitectos", El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkarian, 1993ko ekainaren 27an, 10. or.



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia

Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343

Gipuzkoako eta Nafarroako Arkitektoen ordezkariak elkarturik, Emiliano Pagazaurtundua jauna adineko lehendakari zela egin zen lehenengo bozketa, Jaime del Ojo Gobernadore Zibilaren aurrean, behin-behineko lehenengo Gobernu Batzordea hautatzeko, eta hartatik honako egitura hau ateratu zen: Dekanoa, Raimundo Beraza jauna; Lehendakariordea, Juan José Gurruchaga jauna; Idazkaria, Faustino Basterra jauna; Diruzaina, Pascual Perea jauna; Liburuzaina, Guillermo Elguezabal jauna; Kideak, Tomás Bilbao jauna, Luis Astiazaran jauna, José Antonio Ponte jauna, Joaquín Labayen jauna, Julián Apraiz jauna, Manuel Ruiz de la Torre jauna. Era horretara, 1930eko abuztuaren 26an izan zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren lehenengo Batzar Orokor Ohiz Kanpokoa, Sociedad Bilbaínaren Egoitza, Geltoki kalean, 1 zenbakian².

Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan eta Errepublikaren lehenengoetan sortu eta garatu zen Elkargoaren araudia, aurre eginez Elkargoan biltzea beren askatasunaren kontrako erasotzat hartzen zuten arkitektoei. Alabaina, haren ondorioz, tirabira handiak sortu ziren lanbidearen baitan eta elkargoetan.

Elkargoaren Egoitza berria Mazarredo Zumarkalean, 69-71. zenbakietan, 1968

1930. urtean sortu zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Emiliano Amann arkitektoaren Sociedad Bilbaínaren eraikinean izan zuen Elkargoak lehenengo egoitza. 50eko hamarkadan, egoitza lekuz aldatu zen, Manuel I. Galíndez eta José M^a Chapa arkitektoen 1952. urteko lana zen Banco Hispano Americano bankuaren eraikinera, hain justu (Kale Nagusia 4). Dena dela, 1968. urtera arte Elkargoak ez zuen bere egoitza behin betiko Mazarredo Zumarkaleko 69-71. zenbakietako gaur egungo bulegoetara aldatu³.

² Lehengo Geltoki kalea gaur egungo Nafarroa kalea da. 1937. urtean aldatu zioten izena kaleari, Espainiako Gerra Zibilean parte hartu zuten nafarren omenez. Iturria: Bilboko Udalaren Errolda Bulegoa.

³ http://biblioarkibiz.blogspot.com.es/2011/03/pilar-salinas-gracia_11.html



EHAEO langileak Gran Vía 4-n, 60eko hamarkadan

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Mazarredo Zumarkaleko orubea erosi zuen, Elkargoaren lokalak eta bulegoak kokatzeko ez ezik, baita Bizkaiko Ordezkaritzari zegozkionak jartzeko ere. Espazioari zegokionez Elkargoak zituen premiak orubearen aukerak baino txikiagoak zirenez, salmenta askeko bulegoak eta alokatzekoak izango zituen eraikin bat eraikitzea pentsatu zen; era horretara, eragiketa finantzatu ahal izango zen, zeina, era berean, Arkitektoen Anaitasunari eskatutako mailegu bati esker egin ahal izan zen. Elkargokideei gutun bat bidali zitzaion, eraikinean bulegoak erosteko aukera emanez, eta hainbat arkitekto-bulego profesional ezarri ziren bertan.

EHAEOk proiektu-lehiaketa bat antolatu zuen bulego-eraikin berrirako, eta José Enrique Casanueva, Carmelo Garcés, Javier Gaya eta Jaime Torres arkitektoek osatutako taldeak irabazi zuen lehiaketa; hala, haiek egin zituzten bulego berrietarako lanak⁴. Proiektuaren proposamen hark oinarri nagusi bat zuen, zeina baitzen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren bulegoak –lehenengo solairua hartzen zutenak– EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzaren egoitzatik bereiztea⁵. Horrez gainera, eraikinak zazpi solairu izango zituen (bigarrenetik gora, alokatzeko eta saltzeko bulegoak), patio zentral baten inguruan egituratuta; patio hark bilduko zuen eraikina ikuspegi espazialek.

⁴ Casanueva, J.E.; Garcés, C.; Gaya J.; Torres, J., "Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro", Bilbao, in "Arquitectura" aldizkaria, 118. zk., 1968ko urria – 40-42. or.

⁵ Hasierako proiektua 1964koa izan zen. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 2.152. KUTXA, 1964/A/0012 espedientea, CASANUEVA/ GARCÉS/ GAYA/ TORRES.



Fatxada Mazarredo Zumarkalea 69-71, 1968



Proiektu fatxada, 1964


EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzak lehenengo solairua eta sotoaren solairua hartzen zituen, eta bi sarrera zituen, Mazarredo Zumarkaleko 71. zenbakitik bata, jendearentzako bulegoetara sartzeko, eta 69 zenbakitik bestea, eraikinaren gainerako bulegoetara sartzeko. Bizkaiko Ordezkaritzaren beheko solairuan proiektuak onartzeko eta kontrolatzeko bulego administratiboak zeuden, bai eta itxaron-gela eta Elkargoko kideen espedienteak eta zerbitzu sariak hartzeko eta izapidetzeko erakusmahai ere. Era berean, beheko solairuan hainbat gela eta bulego zeuden: Ordezkaritzaren Zuzendari Nagusiarena, Kabinete Juridikoarena, Hirigintzako Informazio eta Ikuskaritza Bulegoa, artxibategi ireki handi bat, eta Ordezkaritzaren gainerako bulegoak. Sotoko solairuan, Ordezkaritzaren Lehendakariaren bulegoa, bilera-areto bat, ekitaldi-areto handi bat, liburutegi bat eta tarteko atari handi bat zeuden.




Bizkaiko Ordezkaritzako Itxaron Gela, 1968



Dokumentuen sarrera-irteera, 1968



Bizkaiko Ordezkaritza, behe solairua, 1964



Bizkaiko Ordezkaritza, soto solairua, 1964



Liburutegia, soto solairuan, 1968



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia

Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343


Lehenengo solairuan, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren gelak zeuden. Gela nagusia Dekanoaren bulego handia zen, bilera eremu handi batekin; bertan egiten ziren Gobernu Batzarrari zegozkion saioak. Bulego nagusiaren aldamenean, Dekanotzaren Idazkariaren bulegoa zegoen, barne batzordeetarako areto batekin batera. Lehenengo solairuko hiru gela nagusi horiek osatzen zuten Mazarredo Zumarkalearen kanpoaldera ematen zuen fatxada nagusia. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren bulego administratiboak barneko patio baten inguruan banatzen ziren; era horretara, lehenengo solairuko bulegoen parte bat etorkizunean egin zitezkeen zabalkuntza lanetarako gorde zen.



Dekanoaren bulegoa 1.solairuan, 1968



EHAEOKo Batzorde Nagusiaren gunea, 1968



EHAEO, 1.solairua, 1964



Solairuen arteko eskailera, 1968



Solairuen arteko eskailera, 1968



Areto Nagusia, soto solairuan, 1968

Egurrezko eskailera kiribil handia nabarmentzen zen EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren hiru bulego-solairuak lotzen zituen pieza nagusi gisa; era berean, hall edo itxaron-eremu publikoa lotzen zituen, barnetik. Hura zen, hain zuzen ere, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren eta haren Bizkaiko Ordezkaritzaren arteko bizkarrezurra, osagai eskultoriko baten moduan eta amaren eta seme-alabaren arteko lotura ardatz eta zilbor hestearen erara.

Elkargoaren Egoitzaren berrikuntza, 1990⁶


Bizkaian bizi ziren Elkargoko arkitekto kideen kopuru handia zela-eta, espediente kopurua handitu egin zen, dokumentazioa pilatu egin zen, Elkargoaren lana informatizatu zen, eta Bizkaiko Ordezkaritzaren Egoitzako altzariak hondatuta zeuden; horren guztiaren ondorioz, Bizkaiko Ordezkaritzaren Batzordeak bertako instalazioak berritzea onartu zuen. Azkenik, eta deitutako lehiaketaren erabakiaren ondoren, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak onartu egin zuen berrikuntza, eta lehen solairuko bulegoak eta EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren sotoko solairuko eta beheko solairuko bulegoak berritzea erabaki zuen.

⁶ Intxausti, J.I., Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro; Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. In Noticias Colegiales, "Reforma de la Sede de la Delegación en Vizcaya del COAVN", 1990eko otsaila, Bilbao.



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia

Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343



Fatxadaren ikerketa, 1989


Era horretara, arkitektura-lehiaketa bat antolatzea erabaki zen, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren Egoitzan zeuden arazo guztiei helduko zien oinarrizko proiektu baten hautaketa egiteko. Hau da, gai hauei heldu beharko zien proiektu hark: alde batetik, bulegoaren berregituratze funtzionala, kontuan hartuta langileen eta funtzionamenduaren organigrama. Era berean, ekitaldi-aretoaren eta lehenengo sotoko lokalen moldaketa, sor litezkeen erabilerei dagokienez malgutasun handiagoa emateko, hala nola, erakusketak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak eta kultura egitarauak. Era berean, erakundearen erakusgarri ziren lokal adierazgarriak duin egitea, eta fatxadaren ere lanak egitea erabaki zen. Azkenik, Arkitektoen Kutzaren bulego bat ezarri zen. Lehiaketaren epaia Carlos Arrizabalaga Maresma arkitektoaren eta Teresa Noguera Nieto laguntzailearen aldekoa izan zen⁷.

⁷Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 1989/A1673 espedientea CARLOS ARRIZABALAGA



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia


Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343



Fotografía de la maqueta

Maketaren argazkia

0 solairuan edo beheko solairuan Arkitektoen Kutzaren bulegoak (fatxada kalera zutela) eta EHAE Oren Bizkaiko Ordezkaritzaren bulegoak zeuden, sarrera hall publiko baten bitartez bereizita. Era berean, bigarren sarrera bat proposatzen zen, zuzenean +1 solairura (EHAE Oren bulegoak) eta -1 solairura (liburutegia eta ekitaldi-aretoa) ematen zuen bigarren sarrera batekin, horien erabilera Ordezkaritzaren lan-ordutegitik bereizteko. Beheko solairuan kokatzen zen, halaber, lan eremu orokorra, espedienteak emateko eta jasotzeko erakusmahaiekin, Hirigintzako Informazio Bulegoarekin, bulegoekin eta bisen azterketarako eremuak, urteko artxibategia eta artxibategi historikoa.




EHAEOko Bizkaiko Ordezkaritza, behe solairua, 1989

+1 solairuan, Asemasen bulegoak birmoldatzera eta sarbide eremura mugatzen zen, hasieran, esku-hartzea, baina lehen esan bezala, lehiaketaren epaiaren ondoren, EHAEOk bere bulegoak birmoldatzea erabaki zuen, eta, hortaz, nabarmen aldatu zen egikaritze proiektua, oinarritzko proiektuaren aldean; hala, +1 solairua zuzendaritza bulegoetarako izan zen, bai eta batzar-aretoa, Dekanoaren eta Diruzainaren bulegoak eta eskaileraren alboan itxaron-eremu handi bat jartzeko ere.


-1 solairuak, kanpotik sarrera independentea zuenak, bokazio nabarmen publikoa zuen, eta bertan biltzen ziren, besteak beste, liburutegia, ekitaldi-aretoa, erakusketa-aretoa eta hainbat bulego pribatu, aholkularitza juridikoa eta batzordeak, eta artxibategia. Ekitaldi aretoaren eta erakusketa aretoaren arteko malgutasun espazialari esker -bi eremu horien arteko panel birakariaren bitartez lortua-, Ordezkaritzaren premien arabera zabal zitezkeen bulego horiek. Horren guztiaren ondorioz, trantsizioko espazio erakargarriak lortzen ziren, eta eraikinaren barneko patioaren ikus-eremuarekin batera, zabaldut egiten zituen Ordezkaritzaren erakusketa eremuak.

-2 solairua artxibategiari eskainia zen erabat, apalategi mugikorren sistema baten bitartez, eta bertan gordetzen ziren paperezko espediente guztiak, 1930. urtean EHAEO sortu zenez geroztikoak⁸.




EHAEOko Bizkaiko Ordezkaritza, soto solairua, 1989

⁸ 2012. urteaz geroztik, EHAEO-Bizkaiko funts dokumentalaren parte bat Boroa Elkartegiko 11. nabera (Boroako Industriadunak, 19. Pabilioia, Amorebieta-Etxanoko udalerrian) eramaten hasi ziren, hau da, egoitza ofizialetik 10 kilometrora. EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzaren jabetzakoa da nabea.



EHAEOko Bizkaiko Ordezkaritza, 1. solairua, 1989

Kanpoaldetik, Ordezkaritzaren eta EHAEOren fatxada eraikinaren irudi bihurtzen ziren, bigarren mailara eramanez gainerako solairuak. Beheko solairua kanpoaldera itxita gelditzen zen, burdinazko plantxa ia itsuen bitartez, eta bertan zegoen idatzita EHAEO laburdura; era horretara, eraikinaren muturretako sarbideak lotzen ziren eta egitura orokor integratuaren ideia sendotzen zen, eta ez idazkun gainjarriena. Horri esker eta Ordezkaritzaren sarrera nagusiko altzairu herdoilgaitz leunduko euskarri bakartuari esker, elkarriketagine tangentziala bultzatzen zen alboko eraikinekiko, jatorrizko proposamen simetrikoaren orde.



Lehiaketaren epaia eman ondoren, hainbat aldaketa txertatu behar izan ziren, EHAE Oren +1 solairua erantsi baitzitzaion proiektuari⁹. Aldaketa horiek fatxadari eragin zioten bereziki, aldatu egin baitziren materialak, neurriak zein konposizioaren proportzioak, eta Corten altzairuzkoa, latorri leunduzkoa, harizkoa, zurgintzarik gabeko beirazkoa eta Gironako harizkoa izatera igaro zen.

Beste esku-hartze batzuk

Elkargoaren Egoitzaren 1990eko berrikuntza-lanez gainera, zeinaren bitartez eguneratu ziren EHAE Oren Bizkaiko Ordezkaritzaren eta EHAE Oren instalazioak, beste hainbat esku-hartze txiki egin dira, eremuak, instalazioak eta altzariak hobetzeko eta Elkargoko kideen eta lanbidearen premia berriek eskatzen dituzten aldaketetara egokitzeko.

⁹ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 1990/A0102 espedientea, CARLOS ARRIZABALAGA



COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA
Alda. Mazarredo, 69-71
E-48009 Bilbao
Bizkaia

Tfn. 34+944 244 474
Fax. 34+944 236 343

1975ean, 1968ko jatorrizko bulegoan berrikuntza bat egin zuten Fernando Garaizar, Gonzalo Arcocha eta Joseba Escribano arkitektoek, nahiz eta mende aldaketarekin hasi zen Elkargoaren Egoitza garai eta premia berrietara mailaz maila egokitzen¹⁰. Era horretara, 2003. urtean, Eduardo Aurtenechea eta Cristina Pérez-Iriondo arkitektoen eskutik, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren beheko solairuan Arkitektoen Kutxak zuen bulegoa eguneratu zen, eta bertako altzariak eta instalazioak aldatu ziren¹¹. 2005. urtean, Juan Carlos Saldaña arkitektoak fatxada birgaitzeko lanetan jardun zuen¹². Era berean, Miguel Zaballa arkitektoak EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren komunak berritu zituen 2006. urtean¹³. Eta 2008an behin betiko aldatu zen EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzaren irudi publikoa, Arkitektoen Kutxaren (Arquia) bulego zaharrean beheko solairuko¹⁴ gaur egungo erakusketa-aretoa jarri zenean, Kepa Iturralde eta Zigor Iturbe arkitektoen eskutik.

Arantxa Kintana
Kulturako kidea, EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzan

Kolaboratzaileak:
M^a del Mar Domingo
M^a Carmen Aurrecoechea
Amaia Agúndez

¹⁰ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 1975/A 1014 espedientea, GARAIZAR/ARCOCHA/ESCRIBANO

¹¹ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 2003/A2223 espedientea, AURTENECHEA/PEREZ IRIONDO

¹² Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 2005/A2509 espedientea, fatxada birgaitzea JUAN CARLOS SALDAÑA

¹³ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 2006/A1745 espedientea, komunak berritzea MIGUEL ZABALLA

¹⁴ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Bizkaiko Ordezkaritzaren Artxibategia, 2008/A1933 espedientea, Ordezkaritzarako sarreraren berrikuntza ITURRALDE/ ITURBE